

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

“Oihu” zerbitzuak funtziona dezan **funtsezko baliabide** batzuk beharko ditugu. Baliabide horiek materialak zein intelektualak izango dira eta horietaz baliatuko gara zerbitzua martxan jartzeko.

Gure zerbitzua mugimenduan jar dadin ezinbestekoa dugu **espazio** bat bilatzea. Bertan langileak elkartu eta hauen produktibitatea behatuko genuke. EHUrekin elkarlanean arituko garenez, Donostian, Bilbon eta Gasteizen dituen unibertsitatean jarriko dugu gure lantokia. Gela ez oso handi bat beharko dugu, nahikoa langileak eroso sentitu daitezen, eta bertan bi mahai luze eta aulkiak egongo dira. Material hauek EHUK utziko dizkigu gelekina batera eta hauez gain, kafe makina bat ere bai, jada bertan duten zerbaite delako.



Horrez gain, gure zerbitzuaren funtsezko ezaugarri dira **telefonoak**. Hauek guk lortuko ditugu eta 15 izango dira, 5 unibertsitate bakoitzeko. Telefonoak finkoak eta ahalik eta arruntenak izango dira, kostuak txikiak izan daitezten.

Bestalde, **baliabide intelektualak** ezinbestekoak izango dira. Horretarako, taldekide bakoitzaren gaitasunak eta ikasketak kontuan hartuko ditugu. Libe da zenbakiekin abiltzen eta ekonomia ikasketak egingo ditu etorkizun batean. Hau dela eta, bere esku utziko dugu diruarekin zerikusia duena, hala nola, enpresako kostuen beharrezko kudeaketa guztiak. **Nerea**, ordea, jendaurrean hizketan oso trebea izateaz gain, kontaktu anitzak ditu, eta hau oso ondo etorriko zaigu hitzaldiak emateko eta, orkorrean, ahalik eta jende gehienak gure zerbitzua ezagutu dezan. **Naiara**, berriz, bikain moldatzen da negozioen munduan eta akordioetara iristeko gaitasuna du, beraz hau elkarlanean aritzeko enpresekin harremanetan jartzeko baliatuko dugu. Azkenik, **Miriamek** betidanik sormen handia izan du eta, horretaz aparte, jendea barrutik ezagutzeko abiltzen du. Sormen hori publizitate erakargarria egiteko erabiliko dugu, ezinbestekoa baita emakume askoren arreta geureganatzea. Bestetik, langileak hautatzerako garaian Miriamen gertutasun horretaz baliatuko gara.

Oihuk arrakasta izan dezan funtsezkoa da berdintasunaren beharrezko **sentsibilizazioa**, hau da, taldeko kide guztiak gaude feminismoan murgilduta, eta ezinbesteko faktorea da “Oihu” proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Giza baliabideen partaideek, hau da, psikologoek ezinbesteko lana beteko dute “Oihu” enpresaren segurtasunaren aldetik, beraien arduratuko baitira langileak hautatzeaz. Haien ikasketetatik baliatuko dira eta test psikoteknikoak egingo dizkiete lanean sartu nahi duen orori.

Finantzazio baliabideei dagokienez, taldekide bakoitzak dirurik ez jartzea erabaki dugu. Behar dugun diru guztia Eusko Jaurlaritzak emango digu diru-laguntzen bitartez, bai enpresa matentzeko eta bai gure soldatak ordaintzeko.

